2014ko IRAILAREN 24an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA 12 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko irailaren 24an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Juan Luis Illarramendi Roteta jn.
Bertaratutako zinegotziak	Eider Illarramendi Azkue and. Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Jesus Arana Gomez jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Irma Domingorena Zapirain and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. Mª Jose Lafuente Grasa and.
Jarduneko idazkaria	Nagore Artamendi Garmendia and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

a) 2014ko uztailaren 30ekoa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko uztailaren 28tik irailaren 19ra

Segidan, Alkatetzak 2014ko uztailaren 28tik irailaren 19ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko uztailaren 24tik irailaren 12ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko uztailaren 24tik irailaren 12ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- ASTIKO JOLASGUNEAN HERRI-LANAREN KONTZESIOA KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA

Koordinazio informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena bozketan jarrita, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena atzera botatzea.

4.- ZARAUZKO UDALEKO ETA "ZARAUZKO TURISMO BULEGOA" ETA "ZARAUZKO KIROL PATRONATUA" ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA ONARTZEA, HORREK ERAGINDAKO ZENBAIT ERABAKIREKIN BATERA, HALA NOLA, ERAKUNDE AUTONOMOEN DESEGITEARI HASIERA EMATEA; ZARAUZKO UDALEKO ETA BERE ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA-BALIABIDEEN PLANA ONARTZEA.

I.- Udal gobernuak beharrezkotzat jo zuen Zarauzko Udaleko zein haren

erakunde autonomoetako lanpostuen antolaketa egitea; eta gainera, lan hori barruko baliabideekin lantzea erabaki zuen. Izan ere, lanpostuen zerrendak, organigramak eta funtzioen eskuliburuak baliogabetuta geratu ziren Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 3. Epaitegiak eman zuen 188/2012 epaiaren bidez.

Hala, Alkatetzaren 2013ko maiatzaren 31ko 706 Dekretuaren bidez Administrazio Orokorreko Teknikari bat izendatu zen, bai Zarauzko Udaleko, bai haren erakunde autonomoetako eta bai Zarautz-Lur SA sozietate publikoko antolaketa egiteko.

Xede horretarako izapidetutako espedientean jasota dago, besteak beste, egindako txosten teknikoa, Udal honetako beste hiru funtzionariok ere sinatuta dagoena.

Langile guztiek zein Korporazio osoak aukera izan dute antolaketaren proposamen-zirriborroak ezagutzeko eta ekarpenak egiteko, horretarako emandako epeetan.

Aldaketa esanguratsuena hau izango da: "Zarauzko Turismo Bulegoa erakunde autonomoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" desegitea eta zerbitzu horiek kudeaketa zuzenaren bitartez ematea. Zentzu horretan, erakunde horietako lanpostuak Udalaren lanpostu propio bezala jasoak izan dira deskribapen fitxetan. Irizpen honetan bertan proposatu da, beraz, erakunde autonomo horiek desegiteko espedienteak martxan jartzea, egin beharreko izapideak eginez, horrek dakarren guztiarekin. Hau da, erakunde horiek desegin, haien estatutuak indargabetu, dagokion likidazioa egin eta bertako langileak (funtzionarioak, guztiak) udal plantillan sartu.

II.- Zarauzko Udaleko zein haren erakunde autonomoetako antolaketa berri hau eta lanpostuen funtzioen eskuliburuak onartzeak hainbat aldaketa ekarriko ditu departamentuetan, eta horiek inplementatzeko beharrezkoa da giza baliabideen plan bat egitea, aldaketa horiek egiteko lehentasunak ezarri behar baitira. Beraz, funtzio publikoaren araudian aurreikusita dagoen tresna bat baino gehiago erabili behar da antolaketa berriak sortzen dituen beharrak denboran planifikatzeko, besteak beste, giza baliabideak arrazionalizatzeko programa bat martxan jartzea.

Plan hori eta bertan jasoko diren neurriak langile ordezkaritzarekin negoziatuak izan dira, espedientean egiaztatuta geratu den bezala.

III.- 2014ko ekainaren 17an Giza-baliabideetako AOTk interesdun guztien aurrean jarri zuen UDALAREN ANTOLAKETA 2013 espedientea (2013I3990038), eta 10 eguneko epea ireki zen, alegazioak egin edo egoki iritzitako dokumentu eta ziurtagiriak aurkeztu ahal izateko. Jakinarazpenak egin ondoren, 30 alegazio aurkeztu dira epean eta forman. Horiek behar bezala aztertuak izan dira, eta dagokien erantzuna ematea proposatzen da.

Hori guztia kontuan izanda, espedientean dagoen dokumentazioa ikusirik eta Koordinazioko informazio-batzordeak aurretik irizpena eginda, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO PROPOSAMENA izeneko dokumentua onartzea eta, ondorioz, UDALAREN ANTOLAKETA 2013 2013I3990038 espedienteari aurkeztutako alegazio, dokumentu eta ziurtagiriei erantzutea.

Bigarrena.- Zarauzko Udaleko eta "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoetako ORGANIGRAMA ETA LANPOSTUEN DESKRIBAPEN FITXEN ESKULIBURUA onartzea, irizpen honen I. eranskinean jasotzen diren bezala. Lanpostuen deskribapen fitxa berri horiei dagozkien balorazioak ez dira indarrean sartuko Udalbatzarrak onartu artean.

Hirugarrena.- II. Eranskinean —TRANTSIZIOZKO FUNTZIONAMENDU ALDIA– datozen neurriak onartzea, dokumentu horretan zehazten diren doiketa-beharrei aurre egiteko.

Laugarrena.- "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoak desegiteko espedientearen tramiteak hastea, Zarauzko Udalak zerbitzu horien kudeaketa zuzena egin ahal izateko, bere ondorio guztiekin.

Bosgarrena.- ZARAUZKO UDALEKO ETA HAREN ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATU ETA ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: 2014 GIZA BALIABIDE PLANA onartzea (III. eranskin modura jaso da). Programa horretan aurreikusitako efektiboen berresleipenak programa horretan adierazitako fasetan sartuko dira indarrean.

Seigarrena.- Zarauzko Udaleko eta, desegin artean, haren erakunde autonomoetako plantillan, lanpostuen zerrendan eta 2009 eta 2011ko lan eskaintza publikoetan egin beharreko aldaketak egin; eta hori guztia lege eta aurrekontu bitartekoen arabera.

Zazpigarrena.- Dokumentu hauek eragiten dituzten lanpostu sorrera eta aldaketen ondoriozko jarduera administratiboak abian jar daitezela eskatzea. Alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari ematen zaio onartu diren dokumentuak interpretatzeko eskumena, aldez aurretik Koordinazioko informazio-batzordeak irizpena eginda.

Zortzigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, eta erakunde autonomoei, Udal departamentuetako buruei, langileen ordezkariei eta eragindako langileei jakinaraztea.

5.- 2015. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK. HASIERAKO ONESPENA

Koordinazio informazio-batzordeak 2015. urterako ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena aurkeztu du.

Horrenbestez, Koordinazio informazio-batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hasierako onespena ematea ondoko Ordenantza Fiskal hauen eranskinen aldaketari, 2015ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko:

a) 6. ordenantza fiskala: udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.

b) 7. ordenantza fiskala: zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.

c) 8. ordenantza: udal aginpideko zerbitzuak eskaini edo administrazio jarduerak betetzeagatiko prezio publikoak arautzen dituena.

d) 13. ordenantza fiskala: telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresek egiten duten udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan ezartzen duenaren arabera. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

2015. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK

INDARREAN DAUDEN ORDENANTZA FISKALETAN EGIN BEHARREKO ALDAKETAK
(ONDORIO-DATA: 2015eko URTARRILAREN 1etik AURRERA

6. ORDENANTZA FISKALA:
UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

a) Erabilera publikoko udal lurrak okupatzea, merkantziak, eraikuntzako materialak, edukiontziak, hesiak, euskarriak, aldamioak eta antzeko beste instalazio batzuk jarriz

"*Materialak edo merkantziak, egunean m2 edo frakzio bakoitzeko*" tarifa 4,50 eurokoa da. Bestalde, "*Hesiak, aldamioak, karga-jasotzaileak eta antzeko beste instalazioak, egunean m2 edo frakzio bakoitzeko*" tarifa 0,40 eurokoa da. Bi tarifa horien artean

diferentzia handia dago. Diferentzia hori berdindu edo murrizteko, "*Hesiak, aldamioak, karga-jasotzaileak eta antzeko beste instalazioak, egunean m2 edo frakzio bakoitzeko*" tarifa 0,60 eurotan jarri da:

Tarifak	€
Hesiak, aldamioak, karga-jasotzaileak eta antzeko beste instalazioak, egunean m2 edo frakzio bakoitzeko	0,60

Zenbait aldamio jartzeko ezinbestekoa izaten da oinezkoentzako pasabidea uztea. Horrelako kasuetarako tarifa berri bat jarri da, eta egoki ikusi da aurreko tarifaren erdia izatea tarifa berri honen zenbatekoa:

Tarifak	
Aldamioak eta antzeko instalazioak, baldin eta horiek jartzeko oinezkoentzako pasabidea utzi beharra badago, egunean m2 edo frakzio bakoitzeko	0,30

"Kale mozketak" kontzeptuari dagozkion tarifetan, zenbaitetan EZ DIRA bakarrik kaleak ixten, baita espaloiak ere; horregatik egoki ikusi da udal erabilera publikoko lur guztietan sortzen diren "mozketa" guztietara zabaltzea "Kaleak" kontzeptua.

Beraz, "Kale mozketak" jartzen duen tokian "Kaleak, espaloiak edo antzekoak ixtea" jarri behar du.

c) Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun-guneak, feriak edo jolaslekuak jartzea

Letra honetako bi tarifa kendu eta zabalago jaso dira eranskin honi erantsi zaion letra berrian. Tarifa hauek kendu egin dira:

Kutxazain automatikoak, urtekoa	345,80
Salmenta makinak (bideoak, tabakoa, edariak, etab.), urtekoa	107,45

f) Udal bide publikoen lurzoru, lurpe edo hegalkinaren erabilpen pribatiboa hornidura zerbitzuen enpresa ustiatzaileen alde

2014ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 1. Sekzioak 37/2014 epaia eman zuen, eta, hala, epai hori betetzeko, f) letra aldatu eta honela idatzita geratzen da:

Zerga-egitatea:

Tasa hauen zerga-egitatea da udal bide publikoetako lurraren, lurpearen edo hegalkinaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea, udalerri honetan interes orokorrekoak diren hornidurak edo auzolagunen zati handi bati eragiten diotenak egiteko.

Subjektu pasiboa:

Tasa hauen subjektu pasiboak dira interes orokorrekoak diren hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzaileak, edo baita auzolagunen zati handi bati eragiten diotenak ere, enpresa banatzaileak nahiz merkaturatzaileak izan, bai sare horien titularrak badira, bai, horien titular izan gabe ere, sareak erabiltzeko, lortzeko edo horietara konektatzeko eskubideak badituzte.

Zerga-oinarria:

Enpresa hornitzaileek urtean udal barrutian eskuratzen duten fakturazioa.

Karga tasa:

%1,5

Kuota:

Zerga-oinarriari karga tasa aplikatuz aterako da kuota.

Tasa kuantifikatzeko erregimen berezi horretan ez dira telefonia mugikorreko zerbitzuak sartuko.

Aplikatu beharreko arauak:

– Ekitaldi bakoitzaren lehen lau hilabetetan enpresek udal barruan egindako hornidurengatik fakturazio aitorpena egingo dute, auditore enpresaren ziurtagiria erabiliz.

– Klausula hauek alda ditzakete Udalak eta enpresek, tasa hau kudeatzeko hitzarmena sinatzen badute. Tasa hau autolikidazio araubidean eskatu ahalko da.

i) Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea merkataritzako establezimenduekin zerikusia duten materialekin:

Epigrafe honetan letra berri bat erantsi da, i) letra, udal erabilera publikoko lurretan merkataritzako establezimenduek (dendek) honakoak jarritakoan egiten dituzten okupazioetarako: publizitate-kartelak, elementu apaingarriak, hala nola, jardinerak, loreontziak, establezimenduko salgaiak, etab.

Tarifak erabakitzeko orduan, beladoreetarako b) letran jarritako tarifa hartu da erreferentzia modura, baina kasu honetan urteko tarifa jarri da, ez baitago denboraren aldetik denboraldi jakinik. Establezimenduak saltzen duen produktua zuzenean udal erabilera publikoko lurrean jartzen denerako tarifa maximoa ezarri da: 46,80 euro/m^2 (3,90 x 12). Gainerako okupazioetarako tarifa txikiagoa jarri da: 30,00 euro/m^2.

Tarifak	**€/ urteko, edo frakzio bakoitzeko**
Establezimenduko salgaiak, m2 edo frakzio bakoitzeko	46,80
Gainerako elementuak: publizitate-kartelak, elementu apaingarriak, hala nola, jardinerak, loreontziak..., m2 edo frakzio bakoitzeko	30,00

7. ORDENANTZA FISKALA: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

c) Azpiegitura hidraulikoak

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAk bidalitako aurreikuspenetan oinarrituta, honako tarifak jarri dira:

Urteko tarifak	2015/€
Kontagailu bakoitzeko	42,23
Nekazal kontsumorako kontagailu bakoitzeko	42,23

d) Edateko ur hornidura

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAk bidalitako aurreikuspenetan oinarrituta, igoera %5ekoa izango da.

Tarifak	2015/€
Etxeko kontsumoa, m^3 bakoitzeko	0,77
Nekazal kontsumoa, m^3 bakoitzeko	62
Suteen aurkako kontsumoa	0,62
Gainerako erabilera guztiak, m3 bakoitzeko	1,13
Tratatu gabeko ura	0,61
NLU 1 edo gehiago duten baserritarrak	0,38

Honako epigrafea kendu da:

"Ondorengo tasen ordainketan aplikatu beharreko salbuespenak, hobariak eta murriztapenak: Hiri hondakin solidoen bilketa, horien tratamendua eta ezabatze zerbitzua (12. Ordenantza Fiskalean jasotako kasuak izan ezik); Saneamendu eta estolderia zerbitzua; Azpiegitura hidraulikoak eta edateko ur hornidura (a, b, c eta d letrak)"

f) Udal hilerriko zerbitzuak:

2014ko abuztuaren 5ean, Idazkaritzak egindako txostena oinarritzat hartu eta Berdintasun Printzipioa aplikatuz gero, ezin da erroldaren araberako diskriminaziorik egin. Horren inguruan epai desberdinak daude. Horregatik, bada, erroldatuta egon edo ez egon, zergadun guztiei zerbitzu bera eta baldintza beretan ematen bazaie, ezin da tarifa desberdinik jarri erroldaren arabera.

Gai honen inguruan egon diren epai desberdinak aplikatuta, erroldaren arabera diskriminatzen duten tarifak kendu egin behar dira. Diskriminazio horiek kenduta, beraz, indarrean zegoen taula baliogabetu eta honakoa onartzen da:

Zerbitzu bakanak

1.1.1.1. Tarifak	€
Nitxo edo panteoian lurperatzea	88,20
Lurrean hobiratzeagatik	324,30
Panteoietan barrualdeko garbiketa eta gorpuzkinak berriro kokatzea	211,55
Gorpuzkinak hobitik ateratzea eta lekualdatzea	105,85
Banaka lurperatzeko nitxoa emateagatik	563,85
Hezurtegiaren kontzesioa, ixtea eta gorpuzkinak lekualdatzea barne	601,95
Kolunbario baten kontzesioa, ixtea barne	535,80
Gorpuzkinak erraustea	285,50
Beste hilerrietatik datozen gorpuzkinak erraustea	432,45

m) Agiriak izapidetu eta egitea:

m) "Agiriak izapidetu eta egitea" letraren barruan, ondoren adierazitako kontzeptuen tarifak egokitu behar izan dira garestiegiak direlako: "Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan – DIN A4)" eta "Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan – DIN A3)". Beraz, tarifa horiek aldatu eta honela geratu dira:

Tarifak	**(Euro)**
FOTOKOPIAK:	
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan – DIN A4)	0,50
Kopia bakoitza edo orri inprimatua (koloretan – – DIN A3)	1,00

Udaltzaingoak egiten dituen txosten eta jarduerei dagokienez, egoki ikusten da tarifa ez mugatzea bakarrik "Udaltzaingoak egiten dituen istripu txostenak" kontzeptura, eta bai, ordea, tarifa zabaltzea istripu txosten baten kostu eta denbora antzekoak dituzten beste udal jarduera batzuetara.

Horregatik, bada, "Udaltzaingoak egiten dituen istripu txostenak" jartzen duen tokian, **"Udaltzaingoak egindako txostenak"** jarri behar da. Tarifa 30,60 euroan mantentzen da.

Egoki ikusten da "ANIMALIA ARRISKUTSUAK EDUKITZEA" kontzeptuari dagokion tarifa zehaztea:

Bi momentu desberdin daude:

1. Animalia arriskutsua erosi eta lizentzia lortzean: kasu honetan, dagokion udal lizentziaren kontzesioa izapidetzen da, eta lizentzia ematen denean, emandako lizentzia guztiak jakinarazi behar dizkio Udalak EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrari (AIEO). Beraz, Udala da lizentzia ematen duena, eta horretarako, aurrez egiaztatu egiten du bete egiten direla lizentzia emateko baldintza guztiak. Espedientea irekitzea, egiaztapena, lizentzia ematea, AIEOra informazioa bidaltzea.

2. Lizentzia berritzean: lizentzia bost urterako izango da, eta ondoren, eskatuz gero, berritu egin ahal izango da; beste bost urterako balioko du berritze bakoitzak. Kasu honetan, izapidetze prozesua animalia arriskutsua erosten deneko berbera da, baina desberdintasuna da EZ dela beharrezkoa informazioa AIEOra bidaltzea.

Adierazitako guztia kontuan izanda, komenigarri ikusten da bi momentu desberdin horiek tarifetan adierazita uztea, hau da, lizentzia eman eta berritzen denean:

Kontzeptuari dagokionez, "Animalia arriskutsuak edukitzea" kontzeptua kendu eta lehen aipatutako bi momentu horiek desberdindu eta honela geratzen dira: "ANIMALIA ARRISKUTSUAK EDUKITZEKO LIZENTZIA" eta "ANIMALIA ARRISKUTSUAK EDUKITZEKO LIZENTZIA BERRITZEA". Lehen momenturako tarifa 200,30 euroan mantentzen da, eta sortu den tarifa berrirako 100,30 euroko tarifa ezarri da, animalia Erregistroan alta emanda baldin badago errazagoa baita tramitazioa egitea.

Beraz, "Animalia arriskutsuak edukitzea" tarifa kendu, eta honako tarifak ezarriko dira:

Tarifak	**(Euro)**
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia	200,30
Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia berritzea	100,30

8. ORDENANTZA:
UDAL AGINPIDEKO ZERBITZUAK ESKAINI EDO ADMINISTRAZIO JARDUERAK BETETZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

c) HERRIKO AUTOBUSA

Lehen bi taulak kendu egin dira, **TARIFEN INTEGRAZIOKO SISTEMA JARTZEKO** Udalak sinatutako **LANKIDETZA-HITZARMENA** betez (Udalbatzarraren 2013ko irailaren 25eko akordioa), ITG tarifa-sistemak araututako tarifak aplikatuko direlako.

13 ZENBAKIDUN ORDENANTZA FISKALA:
TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ENPRESEK EGITEN DUTEN UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 1. Sekzioak 182/2014 EPAIA eman zuen, eta, hala, epai horrek agindutakoa betetzeko, derrigorrezkoa da Ordenantza Fiskaletan aldaketa hauek onartzea:

2. artikulua. Zerga-egitatea

2. artikulu honetako 2. puntua honela idatzita geratzen da:

2.- Zerbitzua emateko udal bide publikoetako lurzorua, lurpea edo hegala materialki okupatuko duten antenak, instalazioak edo sareak erabili behar direnean gertatuko da jabari publikoaren aprobetxamendu berezia.

4. artikulua. Subjektu pasiboak

4. artikulu honetako 1. puntua honela idatzita geratzen da:

1.- Tasen subjektu pasiboak izango dira, orokorrean herritar guztiei edo zati handi bati eragiten dien telefonia mugikorreko zerbitzuak ustiatu edo ematen dituzten enpresak, betiere sareen titularrak badira.

ZARAUZKO KALE GARBIKETA ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUAREN PREZIOAK BERRIKUSTEA

Udalbatzarrak, 2009ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen UTE FCC-SERBITZU enpresari (gaur egun ZARAUZKO GARBIKETA UTE) esleitzea, behin-behinekoz, ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK BILDU ETA GARRAIATU, KALEAK GARBITU ETA ANTZEKOAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA kudeatzeko kontratua, urteko 1.449.948,47 euroko prezioan (BEZ barne). Kontratua 2009ko irailaren 17an sinatu zuten.

Gerora, kontratuan aldaketa batzuk sartu dituzte eta, halaber, kontratuaren prezioak berrikusi dituzte.

2014ko irailaren 2an Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako departamentuak egin duen txostenean (930/2014 zk.), proposatu du ZARAUZKO GARBIKETA UTE

enpresarekin sinatutako kontratuaren prezioak 2014ko irailetik 2015eko irailera bitarte berrikustea.

Udalerri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak egindako proposamena ikusi ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK BILDU ETA GARRAIATU, KALEAK GARBITU ETA ANTZEKOAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA kudeatzeko ZARAUZKO GARBIKETA UTE enpresarekin sinatutako kontratuaren prezioak berrikustea, ondoren zehazten den moduan (BEZ barne):

Prezioak berrikusi ondoren, urtero ordaindu beharreko zenbatekoaren bilakaera (BEZ barne)

2014-2015 urtea (2014/09/17tik 2015/09/16ra)

ZERBITZUA	AURREKOAN BERRIKUSI ONDOREN GAUZATZE MATERIALA	BERIKUSPENA 2013ko KPIaren %85 (0,3%) = 0,255%	KONTRATAK GAUZATZEA 2014 (GO+IO) = 10%	INBERTSIOAK	ZERBITZU USTIAPENA	BEZ % 10	**GUZTIRA**
Hiri-hondakinen Bilketa	330.789,83 €	331.633,35 €	364.796,68 €	23.743,39 €	388.540,07 €	38.854,01 €	427.394,08 €
Poligonoetako bilketa	106.279,59 €	106.550,60 €	117.205,66 €	12.648,98 €	129.854,64 €	12.985,46 €	142.840,10 €
Kale garbiketa	720.006,65 €	721.026,94 €	794.026,94 €	49.942,36 €	843.969,30 €	84.396,93 €	928.366,23 €
GUZTIRA	1.157.076,07 €	1.160.026,61 €	1.276.029,27 €	86.334,73 €	1.362.364,00 €	136.236,40 €	1.498.600,41 €

Bigarrena.- Berrikusitako prezioak (BEZ barne) honako hauek dira:

2014ko irailaren 17tik 2015eko irailaren 16ra

Kale garbiketa:	928.366,23 €
Hiri-hondakin solidoen bilketa:	427.394,08 €
Industri-hondakin solidoen bilketa:	142.840,10 €
GUZTIRA 2014/09/17-2015/09/16	1.498.600,41 €

7.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) PSE-EE taldeak: Euskal Jaietan pankartak

Ondoren, PSE-EE taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du jarduneko idazkariak. Honela dio:

EUSKAL JAIETAN PANKARTAK

ZIOA:

2014-ko euskal jaitan Zarauzko kaleak pankartaz josita egon dira. Bereziki nabarmentzekoa da Foruen Plazan eskegita zegoen kartela: bi ETA kideen izenak eta "Zuen borroka gure eredua" leloarekin. ETA talde terroristak zarautzen hainbat herritar erail, zauritu, jazarri eta zuzenean mehatxatu ditu. Herritar ororentzat onartezina da ekintza faxista hauek goraipatzen dituzten kartelak herriko plazetan egotea. Are gutxiago herritar guztien parte hartzea sustatu beharko luketen festetan.

Badakigu udal gobernuaren baimena zutela euskal jaian kaleetan zeuden pankartak jartzeko. Beraz, ETAko presoen argazkiak zituzten pankartena erea bai. Oso larria da Instituzio batek baimentzea ETAko terroristak horrela goraipatzea, are gehiago herritar guztion diren kaleetan.

Pankarta horren leloa, gure ustez, apologia del terrorismo delitoa suposatzen du.

ETAko kideak ez dira eredugarriak, hitzaileak, baizik. Ez dira herritarren salbatzaileak, herritarren hiltzaileak baizik.

Udal batzar honek honako mozioa onartzen du:

MOZIOA:

Udal batzar honek ETA-ren bortizkeria salatzen du eta biktima guztiei babesa helarazten die.

Udal Batzar honek salatzen ditu Zarauzko Jaietan ETAko kideekiko argazkiak edota izenak zituzten pankartak, bereziki, Ekaitz Ekhine "Zuen borroka gure eredua" leloa zuen pankarta hori.

Udal batzar honek herritar guztientzako diren jaiak defendatzen ditu, beraz iraingarriak diren eta giza eskubideen zapalketa bultzatzen dituzten kartelak arbuiatzen ditu.

Udal gobernuak azaldu behar du Euskal Jai egunerako zein pankarta jartzea baimendu zituen eta zein baldintzapetan. Baita ere, zein neurri hartu zituen herritarrak irainduak izan ez zitezen jaian eskubide osoz parte hartu zezaten.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea.

b) <u>Bidlu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Kutxabank izaera publiko eta soziala bermatzeko</u>

Hurrena, BILDU udal taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri du jarduneko idazkariak. Hona hemen testua:

KUTXABANK IZAERA PUBLIKO ETA SOZIALA BERMATZEKO

Ia 150 urte inguru pasatu dira Donostiako (Bilbo, Gasteiz...) Udalak eta Gipuzkoako (Araba, Bizkaia...) Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zalantzarik ez dago, eta historiari errepaso txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzio publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.

Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzio publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea. Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziazioa bermatu, udalen finantziazio eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi balitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kutxek urteetan helburu.

Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategitetik sortu den Kutxabanken ildoa ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzio publiko eta soziala betetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi balitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den pribatizazioaren bideari ateak ireki dakizkioke, aipaturiko funtzio publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.

Historikoki bete duen funtzioagatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtzioagatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan bide berri bati ekitea eta hortxe kokatzen dugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburua. Honela dio hitzez hitz:

1. "Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.

3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.

4. Bertako ekonomia errealaren mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:

   - Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziazioa bermatzea.
   - Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea.
   - Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jarduerekin

amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.
- Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.
- Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea."

Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko (Bizkaia eta Araban, banku-fundazio izateari uzteko) eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutxak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.

Hori guztia kontutan hartuta Zarauzko Udalak hondoko erabakiak hartzen ditu:

1.- .Zarauzko Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.

2.- Zarauzko Udalak Kutxaren (GIPUZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.

3.- Norabide horretan, Zarauzko Udalak Kutxako (GIPUZKOAN) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.

Udalbatzarrak, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

c) <u>PSE-EE taldeak: 624/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, liburutegietan mailegatutako obrengatik horien egileek daukaten ordainsari-eskubidea garatzen duena</u>

Halaber, PSE-EE taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri du jarduneko idazkariak. Honela dio:

624/2014 ERREGE DEKRETUA, UZTAILAREN 18KOA, LIBURUTEGIETAN MAILEGATUTAKO OBRENGATIK HORIEN EGILEEK DAUKATEN ORDAINSARI-ESKUBIDEA GARATZEN DUENA

ZIOEN AZALPENA

Botere publikoek bi eskubide hauek zaintzeko ardura daukate: batetik, egileek euren lanengatik ordainsaria jasotzeko daukaten eskubidea; eta bestetik, herritar guztiek kulturara iristeko daukaten eskubidea.

Espainia legez derrigortuta dago Europako direktiba bat Espainiako zuzenbidean praktikan jarri eta aplikatzera (2006/115/EB direktiba), Europako Batasuneko ia herrialde guztiek egin duten bezala. Arau hori Liburutegiko Maileguari Kanona jartzeari buruzkoa da. Herrialde batzuetan jarrita daukate 1943tik eta Europako beste herrialde batzuetan duela urte askotatik.

Gure ustez, Dekretu horretan azaltzen diren salbuespenak ia-ia ez dira existitzen, izan ere, biztanle gutxiko ia herri gehienetan liburutegi zerbitzurik ez dago, eta Espainian eskoletako liburutegi zerbitzuak ondo garatu gabe daude.

Kanon horrek zergapetu egiten ditu Udal Liburutegi Publikoak (herrialdean dauden ia gehienak). Kanonaren arau horrek oraindik gehiago zailduko du horien iraupena. Eta iraupen hori behar-beharrezkoa da kulturara iristeko oinarrizko eskubidea bermatzeko.

Direktibaren nahitaezko aplikazio horrek kontuan hartu behar ditu bi funtzio hauek: sortzaileen konpentsazioa eta kulturara iristeko erraztasunak. Bi eskubideak egotea bateragarria da; beraz, Estatuari dagokio horiek bermatzeko mekanismoak eta formulak jartzea.

2014ko abuztuaren 1eko dekretuak (derrigorrez onartu behar zenak) ez ditu kontuan hartu, bestalde, ez udalerri eta liburutegietako aurrekontuen eskasia egoera, ezta egileena ere. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da Gobernuak hainbat neurri lagungarri hartzea araua eraginkorra izateko eta, aldi berean, erabiltzaile, liburutegi eta egileen beharrei erantzuteko.

Europako legedia legitimoa eta koherentea da. Egilerik gabe ez dago kulturarik, eta komunitateko erakundeek babestu eta bultzatu egin behar dute egileek euren lanagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea. Baina garbi dago, baita, liburutegi publikoek, eta batez ere erkidegokoek eta udalerrietakoek, funtsezko eta ezinbesteko papera betetzen dutela prestakuntza eta oreka sozial eta kulturalaren agindu konstituzionalean.

Liburuaren industriak % 38,1 ekartzen dio Kulturako barne-produktu gordinari. Liburutegiak bizigarriak dira krisi ekonomikoa dela-eta azken urteetan hain larriki kaltetu den industrian. Liburutegiak hutsik egongo lirateke beste batzuek ez balute idatziko, itzuliko, ilustratuko, argazkiak aterako, diseinatuko, editatuko, inprimatuko eta banatuko.

Kanona ez zaio liburutegiko erabiltzaileari kobratuko. Hori administrazio publikoek ordainduko dute, beste gastu hauek bezala: liburuen erosketa (partiden jaitsiera drastikoa izan duena), argia, ordenagailuak, irakurketa-mahaiak eta liburutegi publikoak ondo funtziona dezan behar diren gainerako elementu guztiak.

Pentsatzen dugu Estatuak obligazioa duela, beraz, udal liburutegi publikoetako sarearen hornidura handitzeko, Estatuko 2015eko Aurrekontu Orokorren bidez. Diru-sarrera horien zati garrantzitsu bat egileentzako lan sozialerako erabili beharko dute egile-eskubideak kudeatzeko erakundeek (laguntza, sorkuntzarako bekak, behar medikoak...), eta beste zati bat liburutegi publikoetako funtsak

erosteko eta egileei ordainketa konpentsatzaileak egiteko (zehaztu beharreko muga ekonomiko batekin), EBko ia herrialde guztietan jarrita dagoen bezala.

Horiek horrela, eta kulturara iristeko eskubidea bete dadin, Zarauzko Udaleko Talde Sozialistak ondorengo MOZIOA aurkezten dio Udalbatzari, azter eta onar dezan:

MOZIOA

1. Espainiako Gobernuari eskatzea Estatuko 2015eko Aurrekontu Orokorretan eta hurrengo urtetakoetan igo dezala udal liburutegiek funtsak erosi eta berritzeko behar duten aurrekontu-partida, eta bere gain har dezala udaletako (eta xurgapenaren ondoren erkidegoetako) liburutegi publikoetako mailegu-kanona ordaintzen laguntzeko nahikoa izango den partida berezi bat, eta partida horrek estali dezala 50.000 biztanletik beherako udalerrietako kanon osoa.

2. Espainiako Gobernuari eskatzea Estatuko 2015eko Aurrekontu Orokorretan partida berezi bat sor dezala titulartasun publikoko museoek, artxiboek, hemerotekek, fonotekek edo filmotekek, eta hala aitortutako izaera kultural, zientifiko edo hezkuntzako erakundeek ordaindu behar dituzten eskubideak ordaintzen laguntzeko.

3. Espainiako Gobernuari eskatzea Kultura Arloko Batzarrean biziberritu dezala Irakurketa Sustatzeko Plana (aurreko gobernu sozialistak jarritakoa).

4. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari eskatzea udalerri txikietan liburutegi publikoak bultzatu eta babesteko plan bat egin dezala, Udalerri eta Probintzien Federazio Espainolarekin batera (FEMP).

Udalbatzarrak, gehiengoz, transkribatutako MOZIOA onartzea ERABAKI DU.

d) EAJ-PNV taldeak: Udal gobernua eta hedabideak

Hurrena, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako lehenbiziko proposamena irakurri du jarduneko idazkariak. Hona hemen mozioa:

UDAL GOBERNUA ETA HEDABIDEAK

ZIOA

Legealdia hasi zenetik, Udal Gobernuak ez du gure ustetan publizitate instituzionala arautzen duten printzipioak bete. Iragarki ofizialak, kanpainak eta tankerakoak hedabide jakin batzuetan baino ez ditu publikatu, besteak erabat baztertuz. Diskriminazio argia da hori, informazio eskubidearen eta informazio aniztasunaren aurka doana. Berdintasuna, prortzionaltasuna eta eraginkortasuna ez dira errespetatzen, eta herritarrengana iristen saiatu beharrean, diru publikoa Udal Gobernuan dagoen alderdia txalotzen duten hedabideetara bideratzen da. Gertaera larria da, gardentasunaren eta Gobernu Onaren aurka doana.

Gure Udal taldeak susmoa du harrez gero egoera ez dela aldatu. Susmoa, diogu, Udal Gobernuak ez digulako publizitate instituzionalaren banaketari buruzko daturik helarazi. Baina prentsa, telebista eta irratia jarraitzen dugu, eta ikusten dugu aldeko hedabideen diskriminazio hori bere horretan jarraitzen duela.

Bestalde, azken bolada luzean, hedabide jakin batzuen aurkako eraso sistematikoak ere ikusten ari gara, interneten. Horien artean, herriko kazetari batek jasotakoak. Tuiter kontu iraingarri anonimoen ugaritzearen aurrean, Udalak badu zeresana. Herri honetan ondoegi dakigu, tamalez, kazetari, hedabideetako arduradun, eta hedabideen aurkako erasoak pairatzea. Aurrekariak hor daude, kolore askotakoak gainera, eta ez ditugu oraingoan gogora ekarriko. Adierazpen askatasuna babestu behar dugu.

Azkenik, euskararen sustapena ere aipatu beharra dago. Udal honek mila modutara adierazi du euskararekiko duen atxikimendua, ofizialki, etxe barruan eta kanpoan ere. Beraz, uste dugu hedabideekiko politika ere konpromiso horren isla izan behar duela, hau da, euskarazko hedabideak babestu eta bultzatu behar direla kolokan gauden honetan. Tamalez, murrizketak izan dira dirulaguntzetan, kasurik larriena Erlo Telebistarena delarik. Telebista zarauztarra, eta euskarazkoa.

Guzti hori dela-eta, honako eskaerak luzatzen ditugu:

MOZIOA

1. Zarauzko Udal Gobernuari dei egiten diogu, publizitate instituzionala banatzerakoan, berdintasuna, aniztasuna, eta informazio eskubidea errespeta ditzan, eta bere aldeko hedabideekiko faborezko tratuari amaiera jar diezaion.

2. Zarauzko Udal Gobernuari dei egiten diogu herriko zenbait kazetari eta hedabideen aurkako erasoen aurrean aurkako jarrera azal dezan, eta adierazpen askatasunean oinarritutako elkarbizitza sano eta normalizatu baterako neurriak har ditzan.

3. Zarauzko Udal Gobernuari dei egiten diogu euskarazko hedabideak bultzatu eta babesteko plangintza abian jar dezan, bereziki herrikoak direnean, hala nola Erlo Telebista edo Urola Kostako Hitza.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, aurreko mozioa onartzea.

e) <u>EAJ-PNV taldeak: Udal Gobernua eta web orriak</u>

Azkenik, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri du jarduneko idazkariak. Hona hemen testua:

UDAL GOBERNUA ETA WEB ORRIAK

ZIOA

Legealdia hasi zenetik, Udal Gobernuak hainbat web orri eta sare sozialetako perfil sortu ditu Udalaren web orri ofizialetik kanpo: Zuzarautz, Ehuntzen,

Berdintasuna, Sortaldea, parke estaliaren ingurukoa... Joera honek ez du aurrekaririk Zarauzko Udalan, eta gure ustez arrisku handia dauka eta ziurgabetasun juridikoa sor dezake. Ez dakigu zein den web orri horien guztien kudeatzaile eta administratzailea.

Bestalde, web orri horietako batzuk, herritar guztiak zerbitzatu eta ordezkatu beharrean, irizpide alderdikoi eta propagandistikoekin erabiltzen direla ikusten ari gara, benetako komunikazio tresna izan beharrean. Ehuntzen adibide bat da, baina Zuzarautzek ere merezi du aipamen berezirik.

Hala, EAJ-PNVren Udal taldeak bere kezka eta haserrea azaldu nahi du Udalaren Zuzarautz.info plataformak hartu duen norabidea dela-eta. Web orrian ez dira gure alderdiarekin harremana duten albisteak argitaratzen, 'Loturak' atalean. Hasieran arazoa webgunearen eguneratzen falta izan zitekeela uste izan genuen. Gero ikusi genuen berriz ere webgunea eguneratzen hasi zela, eta berriz ere ez dela agertzen gure alderdiaren informazioa. Honezkero hau gehiegitan gertatu da, kasualitatea edo deskuidoa dela pentsatzeko. Udal Gobernuak erabakia hartu du zentsura prebentiboa ezartzeko eta hori oso larria da.

Gogoratu behar dugu Zuzarautz.info herritarrei, Zarauzko eragileei eta sentsibilitate politiko eta sozial desberdinei ate bat irekitza zuela helburu, aniztasunetik abiatuta. Guztiei kabida ematea zen proiektuaren muinean zegoena. Tamalez, oso kontrako bidea hartu du azken bolada luzean. Bilduren Udal Gobernua interes propagandistikoekin erabiltzen ari da nagusiki zarauztar guztiona den, edo izan beharko lukeen gune bat. Udalak bultzatutako ekimena izanik, izan ere, zarauztarrona eta Udala osatzen dugun guztiona baita.

Gardentasuna eta irekitasuna alde batera utzi ditu Udal Gobernuak, ordea, eta kontzienteki ari da batzuen albisteak publikatzen eta besteak baztertzen, bere interes politikoen arabera. Jatorrian ideia polita zena zeharo okertu da.

Guzti hori dela-eta,

MOZIOA

1. Udal Gobernuari eskatzen diogu Udal ekimen eta jarduerei lotutako web orri guztiak Udalaren web orri ofizialaren aterkipean egoteko.

2. Udal Gobernuari eskatzen diogu Udalari lotutako web orriak eta Zuzarautz.info betetzen ari diren paperaren inguruan azterketa zorrotza eta hausnarketa sakona egitea, besteak beste gai hauek kontuan hartuz:

   - Zer nolako irizpideak erabiltzen diren albisteak argitaratzeko. Sentsibilitate politiko guztiek egon behar dute ordezkatuta.

   - Zenbateraino bete diren hasieran ezarritako helburuak: irakurle kopurua, erabiltzaile kopurua -instituzionalak eta ez istituzionalak-, horien ezaugarriak, herritarren artean izan duen inpaktua, aniztasuna, informazioen ezaugarriak...

   - Zarauzko Udalari zer kostu ekonomikoa suposatzen dion.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, aurreko mozioa onartzea.

Une honetan, irailaren 24ko gaueko hamabiak direnean, batzarburu jaunak bilkurari amaiera eman dio, Errregelamendu Organikoak 63. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Izan ere, artikulu horretan ezartzen baita bilkura guztiak hasitako egun berean bukatu beharko direla.